



LAN-POLTSA SORTZEA, OLAZTIKO UDALAREN UDAN EUSKARAZ ZERBITZUAREN MONITOREAK KONTRATATZEKO.

1-. Arau orokorrak

1.1. Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea Olaztiko Udalaren Udan Euskaraz zerbitzurako monitoreak kontratatzeko. Zerbitzua aisia eta denbora libreko eskaintza da. Udalak antolatzen du Akelarre udal ludotekaren bidez, eta hurrei zuzenduta dago. Zerbitzua euskaraz da. Lan-poltsa honek hiru urteko iraupena izango du.

1.2. Izangaiek proba praktiko bat egin beharko dute, epaimahaiaren aurrean. Era berean, formakuntza eta lan-esperientzia ere baloratuko dira.

1.3. 5 eguneko probaldia ezartzen da, eta horretan Administrazio kontratugileak diskrezionaltasunez ebatzi ahal izango du prozesu honetan hautatutako langileekin egindako kontratazioak.

2-. Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

A) Nazionalitate espainarra izatea.

B) 18 urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

C) Aisialdiko Begirale Titulua izatea.

D) Langabezian egotea edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.

E) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

F) Euskaraz jakitea (C1 ahozkoa). Euskara maila egiaztatzeko organo eskudun batek emandako titulua aurkeztu beharko da eta titulurik eduki ezean, izangaia proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko.

G) Curriculum vitae eta bizitza akademikoa eta profesionala, haiek egiaztatzen duten agiriekin batera (bizitza-laborala lan-esperientzien ziurtagiriak etb.). Halaber, III. Eranskinen formularioa ere aurkeztu beharko da, betetik.

Ez da kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako dokumentazioa, ezta egiaztatu gabe dagoena ere.

2.2. Hautagaiek Sexu Delitugileen Erregistroan inskribaturik ez daudela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute. Izan ere, adingabeekin lanbide, ogibide edo jarduerak egin nahi dituen orok ezin da inolaz ere Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik

egon, hala ezartzen baitu Haurrak babesteari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, bai eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ere.

3.- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

3.1. Udan Euskaraz zerbitzuan monitore-lanpostua betetzen duen pertsonak gai izan beharko du aisiaz eta denbora libreaz gozatzeko moduko hezkuntza-jarduerak planifikatu eta gauzatzeko, eta jolasa eta jolas-jarduera izango dira heziketa-jardueraren oinarriak.

* Aisialdian heztea, hau da, zerbitzuak irauten duen bitartean hezten laguntzea.

* Aisialdirako heztea, hau da, aisialdiaz bete-bete gozatzeko modu teknikak, baliabideak eta jarduerak ezagutaraztea bultzatzea.

3.2. Aisialdiko monitore-lanpostuak berezko dituen funtzioak:

* Haur bakoitzaren eta taldearen ezaugarriei egokitutako jarduerak programatzea, betiere zerbitzuaren testuinguruan.

* Jarduerak inplementatu eta ebaluatzea.

* Taldeak dinamizatzeko teknikak aplikatzea, egiten den jarduera motari egokitzuz.

* Neska-mutilek jardueretan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzea, behar duten guztietan babesa eta laguntza eskainiz.

* Taldean parte-hartzaileak sartzea bultzatzea.

* Parte-hartzaileen autonomiaren eta heldutasunaren garapena sustatzea.

* Beste monitoreekin eta koordinatzailearekin lankidetzan aritzea, plangintzan eta jardueren garapenean eta ebaluazioan.

* Koordinatzaileari ardurak, zalantzak eta kezkek adieraztea eta haren aginduak betetzea.

* Adingabeek modu pertsonalean edo taldean egiten dituzten proposamenei kasu egitea, bereziki hezkuntza-behar bereziak dituzten haurren kasuan.

* Haurren sarrerak eta irteerak gainbegiratzea, zerbitzuak irauten duen bitartean.

* Funtzionamendu-arauak bete eta betearaztea.

* Materiala zaintzea.

* Harremana izatea euren kargura dauden haurren familiarekin.

* Arazoak aztertu, artatu eta bideratzea, modu eraikitzaile eta positiboan.

* Giro egokia sortzea, parte-hartzaileen ekimenak gauzatzeko aukera emango duena.

* Konfiantzazko giroa sortzea, haur guztiek taldean bere tokia izan dezaten, betiere giro solidario eta lehiakortasun gabeko giroan.

* Haurren kontuzko datuak isilpean gordetzeko konpromisoa hartzea.

4-. Prozedura.

Olaztiko Udalak aldi baterako egiten dituen kontratazioetan zorrotz bermatu behar ditu berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalak. Hori kontuan harturik eta 113/1985 Foru Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu eta aurreko baldintzak betetzen dituzten langabeen eta lana hobetzeko inskribatutako pertsonen zerrenda eskatuko zaio Altsasuko Enplegu Bulegoari hautaketa-prozesua gauzatzeko. Horretarako, hautagaiek proba praktikoa egin beharko dute epaimahaiaren aurrean eta curriculumak baloratuko dira, puntuaziorik altuena duten izangaiak kontratatzeko.



Lan-poltsa osatzen duten izangaiak probetan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

4.2. Olaztiko Udalaren web-orria eta iragarki-taula bide ofizialak izango dira hautaketa-prozesu hau osatzen duten jarduerak argitaratzeko.

4.3. Izangaiak eskabidea eta 2.1 atalean ezarritako dokumentazioa Altsasuko Enplegu Bulegoan 2019ko apirilaren 10ean, 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte.

4.4. Izangai onartuen zerrenda 4.2. oinarrian ezarritako bide ofizialetan argitaratuko da.

4.5. 5 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko. Behin epe hori amaituta, onartuen zerrenda argitaratuko da, eta horrekin batera, euskara-proba eta proba praktikoa egingo diren eguna, tokia eta ordua (euskara-proba soilik egingo dute horretarako nahia adierazi duten izangaiak).

Hautapen-prozesutik kanpo geldituko dira eskatutako euskara-maila (C1) egiaztatu edo proba gainditu ez duten izangaiak.

Euskara-probaren emaitzak bide ofizialetan argitaratuko dira, betiere proba praktikoa egin aurretik. Emaitza horien aurka egoki juzkatzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak erabakiko du erreklamazioak onartu ala ez, eta, hala badagokio, horren inguruko txostena egingo du.

4.6. Proba praktikoa behin-behineko emaitzak eta merituen balorazioa bide ofizialetan argitaratuko dira. 5 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioak aurkezteko edota azterketak berrikusteko. Behin epe hori amaituta, erreklamaziorik izan ezean, emaitzak behin-betikotzat hartuko dira eta izangaien zerrenda osatuko da, lortutako puntuazioari jarraituz. Proposamena horretan eskumena duen kontratazio-organoari egingo zaio.

Erreklamaziorik balego, epaimahaiak horren gaineko ebazpena eman eta behin betiko emaitzak argitaratuko ditu, betiere lortutako hurrenkerari jarraikiz, eta proposamena eskumena duen kontratazio-organoari egingo zaio.

5. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai honako hauek osatuko dute: Olaztiko alkate-lehendakariak. Ordezkoa: Lehenengo Alkate-Ordea, Olaztiko Udalaren kultura-koordinatzaileak; ordezkoa: Altsasuko Udaleko kultur-Teknikariak; sindikatu-ordezkeri batek eta Altsasuko Udaleko ludotekariak; ordezkoa: Udalak norik ordezkatzen duen, huraxek. Olaztiko

Idazkariak idazkari-lanak egingo ditu. Epaimahaiak aholkua eskatzen ahal die gai honetan kualifikatuta dauden kanpoko adituei.

Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

6. Probak.

6.1. Proba praktikoa egin eta merituen baloratu aurretik, euskara proba egingo da. Bakarrik eskatutako maila egiaztatu ez duten izangaiak egingo dute. Proba hori Sakanako Mankomunitatearekin lankidetzan egingo da, Udaleko web orrian eta iragarki taulan argitaratuko den datan eta tokian.

6.2 Proba praktikoa (euskaraz egin beharko da ezinbestean): 70 puntu.

Ariketa praktikoa, zenbait kasu praktikoko landuko dira, zerbitzuaren zereginekin eta edukiekin ikustekoa dutenak. Behin proba bukatuta, izangai guztiei banan-banan deituko zaie egindako ariketa epaimahaiaren aurrean aurkez dezaten.

Epaimahaiak proba praktikoarekin eta egin beharreko lanarekin zerikusia duten galderak egin ahalko dizkiote, hautagaia lanpostu horretarako egokia den ala ez baloratzeko.

Halaber, izangaiaren malgutasuna baloratuko da, honela ulertuta: hurrekin eta egoera desberdinetara egokitze eta eraginkortasunez lan egiteko gaitasuna izatea; arazo, oztopo edota aukera bat identifikatzeko eta hari erantzuna emateko jarduerak egiteko gaitasuna izatea; beste pertsonen arreta eskaintzeko nahia erakustea; besteen pentsamenduak, sentimenduak edo kezkek entzuteko eta ulertzeko gaitasuna izatea, nahiz eta hitzez ez adierazi edo osorik ez adierazi. Baita norberaren emozioak kontrolpean mantentzeko autokontrola edo gaitasuna, eta beste pertsona batzuen probokazio, kontrako jarrera edo etsaitasunaren aurrean erreakzio negatiboa ekiditeko gaitasuna izatea.

Proba gainditzeko gutxienez 28 puntu atera beharko dira. Bazterturik geldituko dira puntuazio hori erdiesten ez duten izangaiak.

6.3 Merituen balorazioa: 30 puntu

Merituengatik gehienez ere 30 puntu emango dira, honela banatuta:

6.3.1. Prestakuntza: gehienez 15 puntu.

6.3.1.1. Araututako prestakuntza:

6.3.1.2. Jarduerari lotutako beste prestakuntza mota batzuk

6.3.2- Lan esperientzia: gehienez 15 puntu.

6.3.2.1 Lan esperientzia:

6.3.2.2. Praktikak

6.3.1. PRESTAKUNTZA: GEHIENEZ 15 PUNTU

6.3.1.1. Araututako prestakuntza:

Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza, Psikopedagogia eta Gorputz Heziketako eta Kiroleko Zientziak, Irakasle ikasketak.	10 puntu
Gorputz eta kirol jardueren animazioko goi mailako teknikaria	3 puntu
Gizarte eta kultur animazioko goi mailako teknikaria	3 puntu
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria	3 puntu
Ingurumeneko gorputz eta kirol alorreko jarduerak bideratzeko teknikaria	1,5 puntu

6.3.1.2 Jarduerari lotutako beste prestakuntza mota batzuk.

Gizarte eta kultura animazioaren gaineko ikastaroa	puntu 1
Gizarte eta kulturako begiralea izateko ikastaroa	puntu 1
Aisialdiko zuzendaria izateko ikastaroa	0,5 puntu
Ingurumeneko teknikak aisialdian lantzeko ikastaroa	0,5 puntu
Ingurumen hezkuntzako monitoreen ikastaroa	0,5 puntos.
Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lantzeko prestakuntza. Puntu 0,50, 50 orduko (proportzionalki banatuak).	
Ikastaroak: Esku-lanak, argazkilaritza, dantza, teknologia berriak, hezkuntza, irakaskuntza, elkarbizitza, kirolaren arlokoak (igeriketa kanpo gelditzen da, Udan Euskaraz zerbitzuaren xedeko jardura ez izategatik), etab. Puntu 0,50, 50 orduko (proportzionalki banatuak).	

** Izangaiak aurreko ataletan aurreikusita ez dauden bestelako titulazio, gradu, master, etab. aurkezten baldin baditu, eta titulazio horiek bete behar den lanpostuarekin zerikusia badute, merituen balorazioaz arduratzen den taldeak kontuan hartu ahal izango ditu. Erantsi dokumentazio hori III Eranskineko taulan, dagokion atalean.

6.3.2 LAN ESPERIENZIA: Gehienez 15 puntu

6.3.2.1 Lan-esperientzia:

Udaletan edota beste erakunde publiko batzuetan hautaketaren xedea den lanpostu berdinean aritzezatik, 2 puntu 60 orduko. (proportzionalki banatuak).	10 puntu
Beste udal edota erakunde publiko batzuetan antzeko lanpostuan aritzezatik, puntu 1 60 orduko. (proportzionalki banatuak).	5 puntu

Udako kanpaldiak, puntu 1 60 orduko (proportzionalki banatuak).	4 puntu
Gazteekin beste jarduera batzuetan begirale aritzeagatik: jarduera fisikoak, kirol arlokoak (jardueraren helburua kirol bakarra ez bada), ludoteka, kultur arlokoak, etab. Puntu 1, 60 orduko. (proportzionalki banatuak).	4 puntu
Monitore aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin: puntu 1 60 orduko. (proportzionalki banatuak).	4 puntu
Hezkuntza formalarekin eta ez-formalarekin zerikusia duten jarduerak edota haurren aisia eta denbora librearekin, puntu 1, 120 orduko. (proportzionalki banatuak).	3 puntu

6.3.2.2. Praktiak

Udaletan edota beste erakunde publiko batzuetan hautaketaren xedea den lanpostu berdinean aritzeagatik, 0,75 puntu 60 orduko (proportzionalki banatuak).	5 puntu
Beste udal edota erakunde publiko batzuetan antzeko lanpostuan aritzeagatik, puntu 0,50 60 orduko (proportzionalki banatuak).	2,5 puntu
Udako kanpaldia: Puntu 0,50, 60 orduko (proportzionalki banatuak).	2 puntu
Gazteekin beste jarduera batzuetan begirale aritzeagatik: Gazteekin beste jarduera batzuetan begirale aritzeagatik: jarduera fisikoak, kirol arlokoak (jardueraren helburua kirol bakarra ez bada), ludoteka, kultur arlokoak, etab. :Puntu 0,50, 60 orduko (proportzionalki banatuak).	2 puntu
Monitore aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin: puntu 0,50 60 orduko. (proportzionalki banatuak).	2 puntu
Hezkuntza formalarekin eta ez-formalarekin zerikusia duten jarduerak edota haurren aisia eta denbora librearekin, puntu 0,50, 120 orduko. (proportzionalki banatuak).	1,5 puntu

* Egindako lanak baloratzeko, ezinbestekoa izango da egunean, astean, hilabetean edo urtean sartutako ordu-kopurua zehazturik egotea, baita emandako zerbitzuak zein urteari dagozkion ere. Zer lan mota edo praktikak egin diren zehaztu beharko da ezinbestean. Informazio hori guztia aurkeztu ezean, meritua ez dira baloratuko. III Eranskin gisa ematen den taula bete beharko da horretarako.

* Lan egindako edo praktiketan aritutako epeen kalkulua. 60 ordu hartuko dira denbora unitatetzat. Justifikatutako denboraldi guztiak kantitate horren arabera kalkulatu dira.



- * Monitoreek kanpaldietan egindako lana edo praktikak orduka baloratuko dira. Horretarako, administrazio publikoetako lanaldiaren iraupena hartuko da unitatetzat (7,20 ordu egunean).
- * Ez dira baloratuko tituluak eskuratzeko egindako praktikak.

Ez da kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako dokumentazioa.

Berdinketarik gertatuz gero, proba praktikoan puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde joko da.

7.- Organo eskuduna.

Epaimahaiak proposatuko dio Olaztiko alkate-lehendakariari lan-poltsa osatuko duten izangaiak izendatzeko, bera baita horretarako eskumena duen organoa. Horretarako, izangai bakoitzak lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.

Lan-poltsa erabiliko da puntuaziorik altuena lortu duen Udan Euskaraz zerbitzuaren monitorea kontratatzeko. Gainerako izangaiak lan-poltsan sartuko dira, lortutako puntuazio-hurrenkerari zorrotz jarraituta, eta bajak, oporrak eta Udan Euskaraz zerbitzuan sor daitezkeen beharrak betetzeko erabiliko dira.

8.- Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtso hauetakoren bat aurkez daiteke, hautara:

- a. Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

9.- Behin-behineko datu pertsonalak babesteari buruzko politika

Izangaien datu pertsonalak Olaztiko Udalaren ardurakoa den fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozesu hori kudeatzeko erabiliko dira, betiere deialdiaren oinarrien arabera. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako. Nolanahi ere, izangaien zerrendak

Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira. Datuen tratamenduak beharrezkoak dira interes publikoaren aldeko deialdia gauzatzeko (2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua, ekainaren 5eko 113/85 Foru Dekretuan oinarri duena. Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua).

Hautaketa-prozesua gauzatu bitartean eta alderdiek espedientearen inguruan aurkeztu ditzaketen jardueren preskripzio-epeetan gordeko dira datu pertsonalak. Prozesu guztia amaitzean behar ez diren datuak ezabatuko dira, betiere aplikatu beharreko artxibo eta dokumentuei buruzko foru araudian ezarritakoarekin bat.

Datuen titularrek eskubidea izango dute euren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu (okerrak direla uste badute) edota kentzeko (beharrezkoak ez direnean). Era berean, tratamendua mugatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, betiere legeak aurreikusitako kasuetan, eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere izango dute, zirkunstantzia zehatz batzuetan, edota bere egoera pertsonalarekin harremana duten arrazoiengatik. Horretarako, udaletxera jo beharko dute, eta bertan erabili beharreko ereduak emango dizkiete. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute.

Olaztin, 2019ko martxoaren 26an
Lehendakaria
Sin.: Mikel Azkargorta Boal



I. ERANSKINA: LAN-POLTSARAKO ARAUAK: DEITZEKO IRIZPIDEAK

1.-. Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea Olaztiko Udalak antolatzen duen Udan Euskaraz zerbitzurako monitoreak kontratatzeko. Zerbitzua aisia eta denbora libreko eskaintza da. Udalak antolatzen du Akelarre udal ludotekaren bidez, eta hurrei zuzenduta dago. Zerbitzua euskaraz da.

2.- Izangaiak deitzeko prozedura hau erabiliko da:

- Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe eta betiere kontratu behar diren monitoreen kopurua bete arte.

- Ahal den azkarren aurkitzea errazteko, izangaiek harremanetarako telefono zenbaki bat baino gehiago eman ahalko dute (mugikorra bada, hobe) edo posta elektronikoa.

- Oro har, izangai bakoitzari kontratu bat eskainiko zaio telefonoz (horrek ez du kentzen posta elektronikoz ere bidali ahal izango zaiola). Izangai bakoitzari gutxienez hiru dei, behintzat, egingo zaizkio emandako zenbakietan eta helbideetan, eta bi egunez. Dei bakoitzaren idatzizko oharra egingen da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

- Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.

- Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

- Kontratua eskaintzeko izangai bat deitu eta erantzuten ez badu, eskaera ez onartutzat joko da.

- Izangaiak honako kasu hauetan geratuko dira zerrendatik kanpo:
 - Probaldia gainditzen ez badute. Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egiten badiote.
 - Izenpetutako kontratuari uko egiten badiote, arrazoitutako kasuetan izan ezik.
 - Lanpostua uzten badute.

II. ERANSKINA ESKABIDEA

JAKINARAZLEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA COMUNICANTE	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
Helbidea / Domicilio:	Telefonoa / Teléfono:
Herria / Localidad:	Probintzia / Provincia:
Nortasun Agiria / Documento de identidad:	Posta Elektronikoa/Correo electrónico:
En representación de:	(r)en izenean
Erantzuna jasotzeko hizkuntza / Idioma para recepción de respuesta:	
EXPONE QUE: / AZALTZEN DU:	
<p>- Ez du dagozkion eginkizunak betetzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko edo psikikorik / No padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio de las correspondientes funciones.</p> <p>- Ez dago sarturik Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean / No está inscrito en el Registro Central de delincuentes sexuales.</p> <p>- Deialdian eskatzen den titulazioa badu eta eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu / Está en posesión de la titulación exigida en la convocatoria, y reúne todas y cada una de las condiciones exigidas, referidas a la fecha de expiración del plazo señalado para la presentación de las instancias.</p> <p>- Esperientzia eta/edo prestakuntza egiaztatzeko, curriculum vitae eta bizitza laborala erantsi ditu, baita formularioa beterik (III. Eranskina) eta merituak justifikatzen dituzten dokumentuak ere / Adjunta Curriculum Vitae y vida laboral para acreditar la experiencia y/o formación así como el formulario relleno (Anexo III) y los documentos justificativos de los méritos.</p> <p>- Desea realizar la prueba de Euskera / Euskarazko froga egin nahi duela BAI / EZ</p>	
SOLICITA / ESKATZEN DU:	
<p>La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en base 2.1 de la convocatoria a la fecha de expiración de presentación de instancias, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.</p> <p>Behean izenpetzen duenak eskakizun honetan aipaturiko aukera saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen benetakoak direla bertan jarritako datuak eta eskaerak aurkezteko epea bukatu baino arinago, baldintzetako 2.1 puntuan agintzen dena betetzen duela, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.</p>	
SINADURA / FIRMA	
DATA / FECHA	
<p>PROTECCIÓN DE DATOS: En virtud de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, por la presente autoriza a que los datos personales facilitados sean incorporados en un fichero denominado contactos responsabilidad de AYUNTAMIENTO DE OLAZTI/OLAZAGUTIA y domicilio a Plaza GARCIA XIMENEZ 1, 31809 OLAZTI/OLAZAGUTIA (NAVARRA)</p> <p>La finalidad de este tratamiento es la de gestionar su petición y los servicios ofrecidos. Estos datos no serán transmitidos a terceras personas y serán conservados siempre que sea imprescindible o legítimo para la finalidad que se captaron.</p> <p>En cualquier caso podrá indicar la revocación del consentimiento dado, así como ejercitar los derechos de acceso, rectificación o supresión, la limitación del tratamiento o oponer-se, así como el derecho a la portabilidad de los datos. Estas peticiones deberán realizarse en Plaza GARCIA XIMENEZ 1, 31809 OLAZTI/OLAZAGUTIA (NAVARRA).</p> <p>Se informa que también puede presentar una reclamación, si así lo considera, ante la Agencia Española de Protección de Datos o ponerse en contacto con el Delegado de Protección de Datos en idezakaria@olazti.com</p>	
<p>DATUEN BABESA: Datu Pertsonalen Babeserako araudiaren arabera, idatzi honen bidez emandako datu pertsonalak contactos izeneko fitxategian jasotzeko adostasuna ematen da, zeinaren arduraduna OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA den, Garzia Ximenez Plaza, 1-31809—OLAZTI/OLAZAGUTIA, helbideaz.</p> <p>Tratamendu honen helburua eskaera honen eta eskeinitako zerbitzuen kudeaketa da. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonari helaraziko eta jasoak izan diren helburuarentzat soilik beharrezko edota legezko diren bitartean gordeko dira.</p> <p>Nolanahi ere, emandako baimena bertan behera utzi ahal izango duzu. Era berean, datuetan sartu, zuzendu edo kentzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, baita tratamendua mugatu eta transferitzeko eskubidearen aurka egiteko eskubidea ere. Eskaerak helbide honetan egin beharko dira: GARTZIA XIMENEZ PLAZA, 1, 31809 OLAZTI (NAFARROA).</p> <p>Halaber, erreklamazioa aurkeztu dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edota harremanetan jarri Datuak Babesteko ordezkariekin: idezakaria@olazti.com</p>	



III. ERANSKINA: BETE BEHARREKO FORMULARIOA

IZEN-ABIZENAK:

NAN:

1. PRESTAKUNTZA: gehienezko puntuazioa: 15 puntu

1.1-. Aratutako prestakuntza:	Puntuazioa	Daukazu titulua idatzi	Zure puntuak
Pedagogia, Psikologia, Gizarte Hezkuntza, Psikopedagogia eta Gorputz Heziketako eta Kiroleko Zientziak, Irakasle ikasketak.	10 puntu		
Gorputz eta kirol alorreko jardueren animazioko goi mailako teknikaria	3 puntu		
Gizarte eta kultur animazioko goi mailako teknikaria	3 puntu		
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria	3 puntu		
Ingurumeneko gorputz eta kirol alorreko jarduerak bideratzeko teknikaria	1,5 puntu		
Guztira			

1.2- Jarduerari lotutako beste prestakuntza mota batzuk.	Puntuazioa	Daukazu titulua idatzi	Zure puntuak
Kultura animazioaren gaineko ikastaroa	1 puntu		
Gizarte eta kulturako begiralea izateko ikastaroa	1 puntu		
Aisialdiko zuzendaria izateko ikastaroa	0,5 puntu		
Ingurumeneko teknikak aisialdian lantzeko ikastaroa	0,5 puntu		
Ingurumen hezkuntzako monitoreen ikastaroa	0,5 puntu		
Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lantzeko prestakuntza. 0,50 puntu 50 orduko (proportzionalki banatuak).			
Esku-lanak, argazkilaritza, dantza, teknologia berriak, hezkuntza, irakaskuntza, elkarbizitza, kirolaren arlokoak (igeriketa kanpo gelditzen da, Udan Euskaraz zerbitzuaren xedeko jarduerak ez izategatik), etab. 0,50 puntu 50 orduko (proportzionalki banatuak).			
Guztira			

Aurreko ataletan aurreikusi gabeko beste titulazio, gradu, master, etab. baldin badituzu, eta haien edukia dela-eta bete beharreko lanpostuarekin harremana badute, hemen adierazi:

	Izena	Iraupena (orduak jarri)
1-		
2-		
3-		
4-		

2. ESPERIENTZIA: gehienezko puntuazioa: 15 puntu.

2.1- Lan-esperientzia:	Eginiko lana deskribatu	Guztira zenbat ordu?	Zure puntuak
Udaletan edota beste erakunde publiko batzuetan hautaketaren xedea den lanpostu berdinean aritzeagatik, 2 puntu 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Beste udal edota erakunde publiko batzuetan antzeko lanpostuan aritzeagatik, puntu 1 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Udako kanpaldiak, puntu 1 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Gazteekin beste jarduera batzuetan begirale aritzeagatik: jarduera fisikoak, kirol arlokoak (jardueraren helburua kirol bakarra ez bada), ludoteka, kultur arlokoak, etab.: puntu 1 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Monitore aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin: puntu 1 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Hezkuntza formalarekin eta ez-formalarekin zerikusia duten jarduerak edota haurren aisia eta denbora librearekin zerikusia dutenak, puntu 1, 120 orduko aldi bakoitzeko. (proportzionalki banatuak).			
Guztira			

2.2- Praktikak	Eginiko lana deskribatu	Guztira zenbat ordu?	Zure puntuak
Udaletan edota beste erakunde publiko batzuetan hautaketaren xedea den lanpostu berdinean aritzeagatik, 0,75 puntu 60 orduko (proportzionalki banatuak).			

Beste udal edota erakunde publiko batzuetan antzeko lanpostuan aritzeagatik, puntu 0,50 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Udako kanpaldiak, puntu 0,50 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Gazteekin beste jarduera batzuetan begirale aritzeagatik: jarduera fisikoak, kirol arlokoak (jardueraren helburua kirol bakarra ez bada), ludoteka, kultur arlokoak, etab.: puntu 0,50 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Monitore aritzea hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin: puntu 0,50 60 orduko (proportzionalki banatuak).			
Hezkuntza formalarekin eta ez-formalarekin zerikusia duten jarduerak edota hurren aisia eta denbora librearekin zerikusia dutenak, puntu 1, 120 orduko aldi bakoitzeko. (proportzionalki banatuak).			
		Guztira	